



MUTIL KOXKOR BAT ITSUAURREKO



Bertso honen egilea: Pello Mari Otaño (1857 Zizurkil, Gipuzkoa – 1910 Rosario, Argentina).

Doinuaren berri

Doinu hau neurriz nahi adina luzatu izan dute bertsolariek. Hamabi puntuko bertsoa ere bota zuen “Basarri”k, 1960ko Txapelketa Nagusia irabazi zuenean, azken agurrean.

Bertsoaren berri

“Limosnatxo bat” sortaren lehen bertsoa da hau. Sortak azaltzen du eskale zahar baten nahigabea, gaztetan odol beror gerrara joan izanagatik; itsu eta eri itzuli zen gerratik. Pello Mari Otaño gaztea zela II. Karlistaldia piztu zen eta 18 urterekin Argentinara joatea erabaki zuen, seguru asko gerratik ihesi.

Mutil koxkor bat itsuaurreko
zuela **aldamenian**
gizon burusoil bizar zuri bat
bi makuluren **gainian**
kale ertzian ikusi nuen
inora ezin **joanian**
ta bera nor zan jakin nahiean
inguratu **nintzarian**
limosnatxo bat eskatu zidan
Jainkuaren **izenian**.

